

GALDEKETA

(sarrera)

Beno amatxi asi egingo gara, nola deitzen zara?

Marialurdes Landiribar.

Zenbat urte dituzu?

Bi zazpi, irustanogeitezazpi.

Non jaio zihen?

Urritzolan Ultzaman.

Zenbat anai-arreba zihieten?

Iru

Nonoak ziren zure gurasoak?

Aitte Urrizolakua ta ama Arraizkoa.

Erri bertan egiten al zuten lana?

Bai bai etxean.

Zertan?

Nekazalgoanaziendakin ta...lurrekin ta...alorrak
eta...aziendak.

Beti izan al zihen...beti bizi izan al zihen etxe berdinean?

Bai beti.

Eta zu?

Ni ere bai aiek igoartio, ezkondiartio onara.
Etxalekura etorri artio, ezkonduta.

Ze izkeran itzegiten zizuten gurasoak?

Euskeraz.

Aldaketarik nabaritzen al zenuen bien euskararen?

Bai, nabaritzen da.

Gossa pasa zenuen noizbait?

Ez sekule sekulorum.

Eskolarik ba al zegoen zure errian?

Ez Elsora joaten gihien lau erritatik Urrizola, Geren-
diain, Elso ta Zenez lau erritatik joaten gihien Elsora. Elsoko
eskarora.

Jende asko joaten al zen bertara?

Zer e...eh...eskolara.

Bai?

Negun bai ta, maixtrak esaten zun asi dira, asi dira
los pajaros deinbierno.

Xarclan

119

Juaten ez baziñen zer egiten zenuen?

Juaten giñen gu beti eskolara.

Eta juaten ez zirenak ze egiten zuten?

Itxian zerbait lana.

Zertara jolasten zenuten eskolan?

Zertara? Eri nola zaio? Gaztelu esaten giñon gero, ori nola zaio? Esaten giñon, lurren, goma bat botata...

Esplikatu al zenuke jokuren bat?

Bai pues, ore gaztelu porejenplo iten giñen laisterrean ta harpatzen zena paatu eskuetik besteai arpatzen ta gero bakarronbatak libretu esaten giñon. Tortzen zelaik ta ukittu batei, furrurrurr! denok joaten giñen.

Zenbat urterekin asi ziñen lanean?

Oi, oi! eskolatikenateatzeko lanean.

Zure aitak istoriorik kontatzen al zizun?

Nere aitak?

Bai

Zer istorio?

Kontuak edo ipuiñak

Bai zerbait kontatzen zun bai.

Zein zen zure gustokoena?

Kontatzen zulaik ore lapurrenaketa olako atzuk.

Kontatuko diguzu?

Nere aitona, attuna, zun izena Pedro migel, ta itten zittun siyek, siyek oso polittak itten zittun, la lanez landara etxekolanek landarez itten zittun siyek, ta gero samaten zittun bizkarrean oianez ori Ultzamako bentetara, leneu baziren biautobus aurrera ta baztanesa, bat juaten zen Iruñetik Elizondora ta bestea Elizondotik Iruñera. Eta ori arsa, baztanesak txauferrak erosten zitton siyek, ta gero diru arrekin eldu zen etxera gau batez eta atera zizaizkion lapurrak Biyanoyanean bazen biye bat oso garbie, Aranon zaio, Aragon ez, Aranon, eta, ori, atea zitzazkion lapurrak ta eman zioten ikara re andia, il bear diau kendu dirue ta il dezaun, ez ez esan omen tzun batek, mixerablea aste guztia aittu izan duk izan duk diru pixkoat biltzeko ta ez diau il bear ta ala utzi zuten, ta Elsoko gizon esaten zuten aiekin sozio bezala zela

lapurreta oietan ta, egun bet etorri zen etxera eta gero
biremonakoan o gizon oi Elsekoa joan omen zitzaion: I aizak
Pedro Miel! Aittu dit ikera, ori, ikeragarri andie eman ditekela
oianean leengo aldin gauetz ta, bai bai, atea zitza^zken lapurrek
dirue eaman baitziaten ta, etzeten kendu. Ez dituk ezagutuko?
Ezagutu banitu ez nitten inor ezagutu, arek entzuten badu
ezagutu nittula il entziatek ok.

Bueno amatxi eskerrikasko